
LITERATURA

LITERATUR KRITIKA

“Tanger-eko ametsa”, Xabier Vernetta.
Itzultzailea: Iñaki Ugarteburu. Elkarlanean, 2000.

Ametsa Paris denean

Hamabost kapitulutan banatutako eleberri honetan, Xabier Vernettak Paris jomuga, Paris askatasun bide, eta Paris bizitza berri baten hasieratzat duen Akram izeneko Marokoko mutil gazte baten abenturak kontatzen dizkigu. Patera batean Penintsulara helduta, jende ezberdina ezagutuz joango da Akram, hauetariko bakoitzak, aurrerapausu bat egiten lagunduko diolarik bere jomugarantz. Bidean, maitemintzea zer den ezagutuko du, arrazakeriaren aurpegi krudela somatuko, legearengandik ihesean ibiltzearen gozo-gazia dastatuko, ezkutatu beharraren lotsa sentituko, adiskidetasunaren balioa neurtuko, egiaren momentua aukeratuko, eta gazte izanik erabakiak hartzen joan beharrari erantzun.

Xabier Vernettak, amaierako egitura duen eleberri honetan, narrazio zuzenari eutsiz, maisuki biribiltzen du kapituluz kapitulu eginez doan istorioa eta aurreko ataletan zintzilik utzitako detaileak haritzen. Kapituluaren izenburuak irakurrita bakarrik uler daiteke istorioa.

Istorkioa biribila dela esan dugun arren, eleberrian zehar bi eskutitz tartekatzen dira; lehenengoa edo Nereak idatzitakoa, Akram eta Nerearen arteko ustezko amodio istorio bati hasiera emateko izanen da. Bigarrena, aldiz, Akram-ek eleberriaren azkenean Nereari zuzentzen diona, eleberriari amaiera emateko izanen da; ez ordea istorioari. Azken gutunari esker, istorioa bukatu gabe gelditzen da, irakurleak egin dezakeelarik bere

irakurketa pertsonala edo irakurleak erants dezakeelarik bere ustez eleberriak iradokitzen edo eskatzen dion amaiera.

Irakurleak haina dakien narratzailea, uneoro irakurlearen interesa piztuta mantentzen ahaleginduko da, Akram-en bidaia, abenturaz beteta egongo dela aurreikusten utziz.

Gaurkotasunez zipristindua

Xabier Vernetta-ren puntu indartsuena gaiaren aukeraketa da. Hau da, "Tanger-eko ametsa" eleberriak gaurkotasun osoa duen gai bat tratatzen du: etorkinena eta hauen inguruan sortzen den arrazakeriarena, hain zuzen. Idazlea ez da ordea gaiaren hautaketa hutsean gelditzen, baizik eta arazo gisa uler dezakegun arrazakeria eta etorkinen aferak, gazteen ahotan jartzten du. Gazte bat aukeratzen du pertsonaia nagusitzat, gazteak izan daitezen istorioaren irakurle, gazteak izan daitezen mezuaren dekodifikatzaile, eta gazteak izan daitezen, finean, aipatu gaiaren inguruan gogoeta egingo dutenak.

Tanger-etik Paris-erako bidea, ametsa da: "Tanger-eko ametsa". Bidea, ametsaren helburua lortzeko medioa: askatasuna eta bizitza berri bat. Bidaia beraz, askatasunaren irudia da Vernetaren hitzetan. Paris-era heltzean Akram-ek Tanger-eriburuz egingo duen aipamena, ordea, gizaki guztiok oinarri dugun herri, kultura, ohitura, hizkuntza eta arrazari buruzko gogoetagai da, pentsamendua.

Xabier Vernetak gazteei gustoko zaizkien elementuak erabiltzen ditu eleberria irakurgarri suertatzeko: abentura nahia, helburuen lorpena, maitemintzea, jai giroa, alkohola eta ausardia dira besteak beste, eleberriak jorratzen dituen ideiak. Eta idazleak irakurleari zeharka helaraziko dion beste mezu bat ere bai: Akram-ek, gaztea izan arren, erakusten duen heldutasuna.

Gazteen lengoiaian

Gazteen artean hain ohikoak ez diren kualitateak bilbatzen ditu Xabier Vernetak Akram-engan. Gazteari arrunta ez zaion

pertsonaia bat aurkezten digu narratzaileak, eredu gisa ikus dezan irakurleak, eta beraz, pertsonaiaren bizitzarekiko errespetu gehiago izan dezan.

Idazleak ez darabil gazteen hizkuntza baina gaien tratamenduari esker, gazteak edo nerabeak, bere lengoiaian mintzo den narratzailearekin berehala eginen du bat. Irakurleak ez du eleberriak aurkezten dion pertsonaiarekin eta istorioarekin identifikatuta sentitzeko arazorik izango.

Xabier Vernettak irudi bat du gogoko eta kapitulu guztietan erabiliko: gaua eta egunari alusio egitea, hain zuzen. Gaua eta eguna bere ahotan, ideia askoren irudi dira: errealitatea eta ametsarena, arriskua eta ziurtasunarena, ezaguna eta ezezagunarena, zuria eta beltzarena, europearra eta afrikarrarena... eleberriaren mezu guztiarena, alegia.

Gaztea ezagutuz

Pertsonaiaetan gehiegi sakondu gabe, gaztea deskribatzea lortzen du narratzaileak, gazteekin bat egitea. Eta aitzitik, irakurlea bere alde jartzea. Gazteak irakurketa bidez heitzeko ahaleginean, irakurleari ia-ia balore bilaka dakizkioken gai anitz lantzen ditu idazleak: ezkutuan edo legez kanpo ibiltzea, polizia engainatzea, norbere identitatea gordetzearen gezurretan ibili beharra, kulturen arteko ezberdintasunak, arrazakeria, ausardia, adiskidetasuna, herrialde ezberdinen arteko muga politikoak eta herrialde ezberdinen arteko adostasun ekonomikoak, besteak beste.

Vernettaren testua goxo samar itzulita dago; orainaldi eta iragan bukatuaren arteko indefinizioan irrist egiten badu ere, irakurterraza egiten da eleberria. Orokorrean, errealak diren leku ezberdinei egiten zaizkien aipamen anitzei eta gaiaren gaurkotasunari esker, oso sinesgarria egiten da.

Ana Urkiza